

Open Course Ware
Kazetaritzaren Deontologia



Helburuak

Ikastaroak bi helburu nagusi ditu:

1. Kazetaritza lanbidearen oinarri moralak ezagutzea.

Horretarako, hurrengo azpi-helburuak proposatzen dira:

- 1.1. Arau moralen eta izaera moralaren garrantzia azaltzea
- 1.2. Etika filosofia morala bezala ulertzea, etikaren metodoa (arrazoizko hausnarketa) lanbide jardueran barneratzen laguntzeko
- 1.3. Lanbideen etikaren eta, zehazki, kazetaritzaren etikaren beharra ulertzea
- 1.4. Kazetarien autonomia moralaren nondik norakoak deskribatzea

2. Kazetaritza lanbidearen berezko izaera morala eta arau moralak barneratzea:

Horretarako, hurrengo azpi-helburuak proposatzen dira:

- 2.1. Kazetaritza jardueraren printzipio oinarriak ezagutzea
- 2.2. Hedabideen jokabide ez egokien iturri nagusiak (galbideratzea, manipulazioa, 'mediakrazia', etab.) zehaztea
- 2.3. Arau moralak eta zuzenbideko arauen arteko mugak ezagutzea (intimitate-eskubidea, ohore-eskubidea, etab.)
- 2.4. Kazetariarentzat aldi berean eskubideak eta betebeharrak moralak direnak ezagutzea: sekretu profesionala eta kontzientzia klausula
- 2.5. Kazetaritzaren arau moralak eta autorregulazioa bultzatzeko eta barneratzeko mekanismoak ezagutzea eta erabiltzea (Kode deontologikoak, erredakzio-estatutuak, estilo liburuak, etab.).

Gaitasunak

- * Kazetaritza lanbidean etikak duen garrantzia balioztatu
- * Kazetaritza jarduerarako etikaren printzipioak praktikan jarri
- * Arau deontologikoen arrazoizko erabilera gauzatu
- * Komunikabideen jarduera desegokiaren eraginak ezagutu

Aurre baldintzak (nori zuzenduta)

Ikasmaterial hau bereziki kazetaritza ikasleei zuzenduta dago. Izan ere, ikastaroaren atal teorikoez zein praktikoez izango diren kazetarietako *ethos profesionala* (edo hedabideetan jarduteko izaera morala) garatzen laguntzea dute helburu. Hedaduraz, ikastaroa komunikazioko beste ikasleei zuzentzen da (Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Publizitatea eta Harreman Publikoak). Hala ere, gaitegia kontzeptu orokorrak eta ezagunak lantzen ditu (etika, morala, izaera morala, kontzientzia, komunikabideen jokabidea, kazetariaren sekretu profesionala, etab.) eta pertsona ororentzat interesgarria izan liteke. Atal praktikoez nahiko ezagunak diren komunikabideen jokabideak aztertzea eta arrazoitzea du helburu, hauen inguruan buruzko arrazoizko hausnarketa bultzatuz (tratamendu arazoak, manipulazioa, intimitatea, etab.).

Deskribapena

Ikastaro honen abiapuntua kazetaritza lanbidearen eginbehar etikoak aztertzea da. Horretarako, etikaren funtsetik hasita eta moralaren ikuspuntua aintzat hartuta, ogibide berezi honen zenbait aspektu jorratzen dira. Lanbidearen obligazio ez juridikoei zintzotasun eta erantzukizun osoz aurre egiteko kazetariak oinarrikoak diren kontzeptuak argi izan behar ditu: etika, morala, deontologia, lanbidea, adierazpen askatasunaren mugak, bizitza publiko eta pribatuaren arteko marra, etab.

Egitaraua

1. Gaia. Deontologiaren oinarriak: etika eta morala

Etika hitzaren esanahia. Etika 'Filosofia Morala' bezala
Etika moralarekiko ezberdintzen
Etikaren funtzioak eta metodoa
Balore, arau eta arazo moralak

Etika eta zuzenbidea

Etika filosofikoaren ereduak (Teoria Aretologikoa, Teleologismoa eta Deontologismoa). Kanten etika.

Etikaren eta lanbideen arteko lotura

2. Gaia. Lanbideen etika

Profesionaltasuna

Lanbide etika eta bere dimentsioak

Lanbide kodeak: eginkizunak eta edukia

Lanbide jardueraren arriskuak

Lanbide etikari buruzko printzipio orokorrak

Erantzukizuna eta kontzientzia morala

Kontzientzia arazotsua eta kontzientzia eragozpenak

3. Gaia. Kazetaritza lanbidea

Kazetaritza lanbidea, bere eboluzioa eta irudi soziala

Kazetaritza lanbidearen printzipioak eta baloreak

Kazetaritza lanbidearen errutina-bizioak

Kazetaritza lanbidearen esparru problematikoak

- Gezurra eta egiazkotasuna

- Intimitatea, bizitza pribatua eta ohore eskubidea

4. Gaia. Informazio-enpresaren etika

Informazio-kontzeptuaren zentsu modernoa

Informazio-enpresen etika

Komunikabideen etika eragiten duten faktoreek

5. Gaia. Kazetariaren autonomia profesionala eta deontologia

Kazetariaren *kontzientzia klausula*: definizioa eta oinarriak

Kazetariaren *sekretu profesionala*: definizioa, garapenak, motak eta mugak

6. Gaia: Kazetaritzaren autoerregulazioa eta autokontrola

Autoerregulazioaren esanahia

Autoerregulaziorako mekanismoak:

- Kode Deontologikoak

- Erredakzio Estatutuak

- Estilo Liburuak

- Kontrol erakundeak (Prentsa kontseiluak eta Irakurleen defendatzailea edo *Ombudsman*-a).

Gai praktikoek kazetaritza-etikaren gai nabarmenak lantzen dituzte: kazetaritza lanbidearen funtzio soziala, informazioaren tratamendua (generoa eta sexismoa, gertaera faltsuak eta *fast-true*, irudien manipulazioa, etab.), informazio-antolaketa eta manipulazio inkontzientea, kazetarien autonomia profesionala, etab.

- 1. Ariketa .** Kazetaritza lanbidearen deontologia eta oinarriak
- 2. Ariketa.** Etika profesionala eta profesionaltasuna: informazio-antolaketa
- 3. Ariketa.** Kazetaritzaren irudi soziala: jarrera sexistak ekiditen
- 4. Ariketa.** Kazetaritza lanbidearen eskubideak eta mugak: adierazpen askatasuna, informazio askatasuna eta ohore eskubidea
- 5. Ariketa.** Kazetaritza lanbidearen printzipioen urraketa (I): gezurra eta ez-gertaerak, *fast-true*, manipulazio kontzientea, etab.
- 6. Ariketa.** Kazetaritza lanbidearen printzipioen urraketa (II): gezurrezko gertaerak eta informazioaren tratamendua
- 7. Filma-ikuskatze.** *Insider* (EE.UU, 1999)
- 8. Ariketa.** Informazio-enpresa eta balio profesionalak (I)
- 9. Ariketa.** Informazio-enpresa eta balio profesionalak (II)
- 10. Ariketa.** Komunikazioko profesionalentzako gutun irekia: autonomia profesionala
- 11. Kazetarien autorregulazioa.** Kasu praktiko baten azterketa etikoa

Metodologia

Ikastaroa hau banaka ikasteko antolatu da. Prestatutako materialaren egitura orokorra hau da:

“Teoria Apunteak_laburpena” izeneko dokumentuan azalpen teorikoak eskaintzen dira, besteak beste, kontzeptu oinarriak argitzeko. Osagarri moduan, gai teoriko bakoitzaren eskemak ere eskaintzen dira, diapositibetan (“Aurkezpena” izeneko dokumentuan). Eduki teorikoak modu egokian barneratzeko, ikastaroak hamabi ariketa praktiko ditu. Hauek gai teorikoekin erlazionatzen dira. Ariketa bakoitzean zein gaiarekin erlazionatzen da azaltzen da. Teoriaren zein praktikaren bereganatzea laguntzeko, “gomendaturiko irakurgaiak” eta “bestelako materiala osagarriak” (kodeak, Erredakzio-estatutuak, estilo liburuak, etab.) izeneko ataletan hainbat dokumentu eskaintzen dira. Eduki teorikoak zein praktikoak modu egokian menderatu diren aztertzeko, ebaluazio-testa bat proposatzen da, ikasleak bere ezaguera-maila neur dezan.

Kronograma

Ikastaroa lauhileko batean egiteko antolatuta dago. Gomendatzen da gai teoriko bakoitza irakurtzea eta ulertzea eta, jarraian, gai bakoitzari lotuta dagoen ariketa praktikoa egitea. Gai teoriko bakoitza, gomendatutako irakurgaiak eta ariketa praktikoa (11. praktika salbu) bi astetan lantzea gomendatzen da, astero bost ordu eskainiz. Kontuan izan behar da 11. ariketak hedabideetan gertatu den kasu etiko baten analisisian datzala eta aste eta lanordu gehiago eskatuko duela.

Ikasteko materialak

Oinarrizko bibliografia

ALSIUS, S.; SALGADO, F. (ed.) (2010). *La ética informativa vista por los ciudadanos. Contraste de opiniones entre los periodistas y el público*. Bartzelona: UOC.

AZNAR, H. (1999). *Ética y periodismo. Códigos y otros documentos de autorregulación*. Bartzelona: Paidós.

BASTERRETxea, J. L. (2002). *Kultura-aniztasuna eta gizarte-komunikazioa*. Udako Euskal Unibertsitatea.

CORTINA, A.; MARTÍNEZ, E. (1996). *Ética*. Madril: Akal.

ETXEBERRIA, X.; GALO, B. (1993). *Oinarrizko etika, lanbideen etika*. Bilbao: Deustuko Unibertsitatea.

PÉREZ FUENTES, J. C. (2004). *Ética periodística: principios, códigos deontológicos y normas complementarias*. Leioa: Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea.

SUÁREZ, J.C. (2001). *Análisis ético de la información: con casos prácticos y documentos deontológicos*, Sevilla: MAD.

Sakontzeko baliabideak

LÓPEZ, C. (1998). *Información y dolor. Una perspectiva ética*. Pamplona: EUNSA.

MORAES, D. de; RAMONET, I.; SERRANO, P (2013). *Medios, poder y contrapoder*. Buenos Aires: Biblos.

Beste baliabide batzuk

- APIE: <http://www.apie.es/tag/codigo-deontologico/>
- Center for Journalism Ethics: <https://ethics.journalism.wisc.edu/resources/digital-media-ethics/>

- Col·legi de Periodistes de Catalunya: <https://www.periodistes.cat/>
- Cuadernos de Periodistas (*Asociación de la Prensa de Madrid*, APM): <http://www.cuadernosdeperiodistas.com/archivo/>
- Euskal Kazetarien Elkartea: <http://www.periodistasvascos.com/>
- Ethical Journalism Network: <http://ethicaljournalismnetwork.org/who-we-are/5-principles-of-journalism>
- Federación de Asociaciones de Periodistas de España (FAPEren Batzordea): <http://www.comisiondequejas.com/>
- Revista 'Periodistas' (FAPE, Federación de Asociaciones de Periodistas de España): <http://fape.es/revista-periodistas/>
- Federación Internacional de Periodistas: <http://www.ifj.org/es>
- El País egunkariko Irakurlearen Defendatzailea: <http://blogs.elpais.com/defensor-del-lector/>

('Bestelako materiala osagarriak' izeneko dokumentuan baliabide gehiago eskaintzen dira)